



## ***Hezkuntza publikoa denona eta denontzat***

Eskolarako bueltan Aiaraldean ere, eskola publikoko ikasle asko ezin izan dira euren ikastetxera hurbildu. Eusko Jaurlaritza ez da gai izan ikasleei eta familiei eskolara garraiatzeko duten eskubidea bermatzeko, berriro ere eskola publikoetako familiak galtzaile.

Ikasturte hasiera honetan eskola-garraioa ez da hezkuntza publikoak bizi izan duen arazo bakarra izan, jantokietako zerbitzua ere kexa iturri dugu aspaldi. Jantokia ez da otordu-zerbitzu hutsa izan behar, eragin zuzena duelako ikasleen osasunean eta baita ingurumenean ere. Hala, elikadura osasuntsua eta iraunkorra behar eta nahi dugu. Gure eskualdean zenbait ikastetxetan janaria Aiaraldetik urrun prestatzen da, horrek dakarren kaltearekin. Ikasleen elikadura zenbaitetan zerbitzua merkeen egiten duenari esleitzen zaio, kalitatea eta produktuen hurbiltasuna kontuan izan barik.

Gure eskualdean ere aurten eskola ordutegian igeriketa ikastarorako autobusa ez du diruz lagunduko Aldundiak.

Halaber, ikasturte berriarekin batera piztu dira Hezkuntza Lege berria onartzeko presak, gogoia zenbait eragile politikoren aldetik eta irailaren hasieran zenbait adierazpen egin dituzte lege berri honen harira. Urriaren 3a izan dute epemuga eragile politikoek orain arteko testuari ekarpenak egiteko. Hezkuntza publikoa osatzen dugun komunitatea ez da kontuan izan lege honen proiektuaren hasieratik bertatik, EHIGEk (Euskal Herriko ikasleen gurasoen konfederazioa), HEIZEk (euskal eskola publikoaren zuzendaritza elkartearen federazioa), sindikatuek, hezkuntza publikoaren aldeko plataformek... ekarpen asko egin ditugu baina lege proposamena babesten dutenek ez dituzte gure proposamenak jaso.

Ekainean bertan, Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik! Plataformako zenbait kidek legebiltzarreko hezkuntza batzordean parte hartu genuen eta Aiaraldeko ikastetxe publikoen egoera zein lege proposamenarekiko desadostasuna jakinarazi genien hezkuntza batzordeko kideei. Baina berriro ere sentitu genuen, eskola publikoa ez dela lege berriaren sustatzaileen lehentasuna.

Bestalde, hezkuntza publikoa gure hezkuntza sistemaren ardatz izango bada, familia guztiek bermatuta izan behar dute hezkuntza publikoan euren seme-alabak matrikulatzea. Gure eskualdean ez dena gertatzen ari Lamuzan, Aretan, Zabalekon, Mendikon... lekua egonda ere, familiei hezkuntza publikorako eskubidea ukatzen ari zaie, matrikula ez zaie zenbait kasutan onartu, gehienetan zaugarritasun indizea argudiatuta. Zaugarritasun egoeran daudenek ez dute hezkuntza publikorako eskubiderik?.

Segregazioaren aurkako neurri berriak Euskal Eskola Publikoko familiak diskriminatu eta sailkatu ditu. Neurri eragingabea, arrazista eta eskola publikoentzako iraingarria dela uste dugu.

Hamaika bider esan badugu ere, berriro ere gogora ekarriko diegu hezkuntza lege honen sustatzailei zer eskola eredu nahi dugun gure herrietan:

Eskola publikoa da hezkuntza sistemaren zerbitzu publikoa, hezkuntza-eskubidea guztiontzat bermatzen duen bakarra. Beraz, "zerbitzu publikoa" hitzen aterkipean, ez dezagun iruzurrik egin. Euskara erdigunean jarriko duen hezkuntza legea nahi eta behar dugu, hezkuntza lege berri honek bermatzen ez duena.

Eskola publiko unibertsala, euskalduna, inklusiboa, berdintzailea, parte hartzailea, anitza, konpentsatzailea, doakoa, laikoa. Euskal Eskola publikoaren aldeko dekalogoan aipatu bezala, denona eta denontzako eskola behar dugu, euskal eskola publikoa.

Beraz oraintxe da unea euskal eskola publikoaren alde gaudenok lege baztertzaile eta pribatizatzaile honen aurrean kalera ateratzeko.

Hori dela-eta, zerbitzu publikoen defentsan, honakoarekin bat egitea eskatzen diegu gure eskualdeko udal talde politikoei:

1.- Hezkuntza publikoan matrikulatu nahi duten guztiek, bermea izan dezatela hezkuntza sistema publikoan lekua izateko.

2.- Urriaren 29an, Donostian, "EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE, HEZKUNTZA LEGE HONI EZ!" egingo den manifestaziorekin bat egitea.

Dokumentu honekin bat egin dute:

***Guraso Elkarteak:***

**Aretako Gallarraga IGE, Zabalekoko IGE, Artziniegako Barratxi IGE, Laudio BHIko IGE, Etxaurreneko IGE, Orozkoko IGE, Lamuza Eskolako IGE, Latorroko IGE, Mendiko Eskolako IGE, Urduña Eskola Publikoko IGE, Okondo Eskolako IGE, Zaraobe Institutuko BABIO IGE**

***Ikastetxeetako Zuzendaritza taldeak:***

**Areta Herri Eskola, Zabaleko Eskola (Amurrio), Laudio BHI, Orozkoko Harana Eskola, Urduña HLHI, Arteko Gure Ama Ikastetxea (Artziniega), Lamuza Eskola (Laudio), Latorro Eskola (Laudio), Okondo Eskola, , Mendiko Eskola (Amurrio), EPA Laudio-Amurrio, Zaraobe Institutua eta Etxaurren Ikastola (Aiara).**

*Aurreko dokumentua gure eskualdeko udaletako talde politikoei helarazi zitzairen euren atxikimendua eskatzeko asmoz. Hauxe jasotako erantzuna:*

*Aiarako Aiara Batuz-ek eta Aiarako EHBilduk, Okondoko Okondo Aurrerak eta Laudioko OMNIAk euren babesa adierazi dute. Gainerako udal taldeek ez dute babestu edo ez dute erantzun.*

***Aiaraldean, 2023ko urriaren 26an***